

ETORKINAK BERGARAN

2006ko Txostena



BERGARAKO UDALA



Gizarte Ongizate Saila



Bergarako Udala

Gizarte Ongizate Saila

ETORKINAK BERGARAN, 2006ko Txostena

Egilea:

Ion Lopez Santamaria

Gizarte ongizate Saila

Bukaera data:

2007ko martxoa

AURKIBIDEA

❖ SARRERA	4
❖ KOPURU OSOA ETA GENEROAREN ARABERA	
○ Etorikin kopurua.....	5
❖ BERGARAN BIZI DIREN ETORKIN KOPURUAREN BILAKAERA	6
❖ BERGARAKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA	
○ Bergarako biztanleriaren bilakaera- Bergarakoak eta etorkinak.....	7
❖ ETORKINAK JATORRIAREN ARABERA	
○ Herrialdeka	8
○ Bergara eta EAE-n arteko datuen konparaketa.....	9
❖ GENERO ETA JATORRIAREN ARABERA	
○ Herrialde bakoitzeko gizon-emakumeak	10
❖ BIZILEKUAREN ARABERA	
○ Bizi diren kalearen arabera etorkin kopurua	11
❖ ADINAREN ARABERA BANATUTA	
○ Etorikin adinaren arabera	12
❖ ADINA ETA SEXUAREN ARABERA BANATUTA	
○ Etorikin kopurua.....	13
❖ BERGARAN JAIOTAKO FAMILIA ETORKINEN HAURRAK	14
❖ ATZERRIAN JAIOTAKO ETA BERGARAN ESKOLARATUTAKO HAURRAK	
○ Atzerrian jaiotako ikasleak	15
❖ KONTINENTEAREN ARABERA	
○ Etorikin jatorrizko kontinentearen arabera	16
❖ ONDORIOAK	17

SARRERA

Ohikoa bihurtu da gure herriko kaleetan zehar jatorri desberdineko pertsonekin topo egitea, edota gure seme-alaben ikasgeletan jatorri anitzeko neska-mutikoak ikustea. Atzerritarrak, kanpotarrak, etorkinak,... zentzu ezberdineko hamaika izen baina errealitate bakarra; gure herrira etorkizun hobe baten bila etorritakoen errealitatea, Bergarako errealitate bihurtu den hori.

Badira bi urte Bergarako Udaleko Ongizate Sailak herriko egoera berri honen azterketari ekin ziola, ezinbestekoa baita errealitatearen ezagutza edozein ekimen martxan jarri aurretik. Esfortzu horren ondorioz 2004 eta 2005eko ikerketek argia ikusi zuten.


2006ko egoeraren ikerketa honek aurreko biak osatu eta datu berriak emango dizkigu. Oraindik ere, edota orain inoiz baino gehiago, Ongizate Sail honek ezinbestekoa baiteritzo ezagutza horretan sakontzeari.

Helburu horrekin aurten ere herriko egoeraren azterketa bideratu dugu eta, dokumentu honen bidez, emaitzak aurkeztea da gure asmoa.

Ikerketan irakurri daitekeenez, Bergara nortasun berezia hartzen ari da inmigrazioari dagokionez. Jatorri jakinako bi populazio nabarmentzen ari dira herrian, eta etorkizunean joera hori indartuz joango dela aurreikusi daiteke.

Bukatzeko, aipatu behar da ikerketak erabiltzen dituen datu demografiko guztiak Bergarako Biztanleen Udal Erroldakoak direla, beraz, ikerketa honen oinarria Bergarako Biztanleen Udal Errolda da.


KOPURU OSOA ETA GENEROAREN ARABERAKO BANAKETA



Bergaran, 2006eko abenduan, 726 etorkin genituen erroldaturik, 2005ean baino 174 pertsona gehiago. Beraz, aurreko urteetako tendentziari jarraituz, etorkinen kopuru totala %26 igo da. Etorritako 174 pertsona horietatik 101 emakumezkoak eta 73 gizona izan dira. Desoreka handi horren ondorioz, emakume etorkinen kopuru orokorra, era esanguratsuan, igo egin da, %3 hain zuzen ere. Nabarmendu beharra dago, poliki-poliki, sexuaren arabera etorkinen kopurua berdinduz doala.

Aurten etorri diren emakume gehienak Boliviarrak izan dira, eta emakume etorkin kolektiborik handiena bihurtu dira, alde handiarekin.


BERGARAN BIZI DIREN ETORKIN KOPURUAREN BILAKAERA



Arestian aipatu den bezala, urtetik urtera Bergaran erroldatutako etorkin kopurua etengabe igotzen ari da eta dagoeneko Bergarako biztanleria osoaren %4,9 osatzen dute.

Datu hori kontuan hartu beharrekoa da, izan ere, igotzen jarraituko du.

BERGARAKO BIZTANLERIAREN BILAKAERA



Grafikoan ikusi daitekeen bezala, 2004 urtetik aurrera Bergararren biztanleria jaisten joan da, Etorkinen kopurua, berriz, urtetik urtera igotzen joan da.

Datu hori oso esanguratsua da, etorkinen etorrerari esker bertakoek jaitsiera konpentsatu egiten da eta. Bergarako biztanleriaren kopurua 14.800 pertsonatik gora mantentzen da, hau da, gaur egun Bergarako biztanleen kopuruari etorkinei esker eusten zaio.

ETORKINAK JATORRIAREN ARABERA


<u>BERGARA ETA EAE-N ARTEKO DATUEN KONPARAKETA</u>		
JATORRIA	% EAE-n	% Bergaran
Kolonbia	%13	%5
Ekvador	%9	%3
Maroko	%8,9	%9
Portugal	%7,5	%11
Errumania	%7,4	%2
Bolivia	%7,2	%21
Pakistan	%1,2	%16

Gaur egun Bergaran dauden etorkinen jatorria oso zabala bada ere, gehienak Bolivia (%21), Pakistan (%16) eta Portugalekoak (%11) dira. EAEn berriz honakoak dira nagusienak jatorriaren arabera: Kolonbia, Ekuador eta Maroko.

Bergaran etorkinen kopuru handienaren jatorria den Bolivia EAEko seigarren postuan dago. Pakistan, berriz, ez dago lehenengo hamarren artean.

Argi dago Bergarako datuak ez daudela sintonia handian EAEkoekin, eta etorkinen jatorriari dagokionez populazio desberdindua dugula.


BIZILEKUAREN ARABERA



Herrian etorkinen bizilekuari dagokionez, joerak berdin jarraitzen du; hori dela eta, etorkinak nagusiki herriko gune konketru batzuetan kokatzen ari dira.

Aipatu beharra dago kontzentrazio txiki kezkarri batzuk ere badaudela; pakistandar gehienak Zubiaurre inguruan, marokoarrak Osintxun, eta boliviarrak erdialdean (Zubieta, Simon Arrieta,...) kokatzen ari direlako.


ADINAREN ARABERA BANATUTA



Adinari dagokionez, etorkin gehienak 21 eta 40 urte bitartekoak dira, %56 osatuz. Adin tarte honetako pertsonen kopurua iaiztik berriro dezente handitu egin da, izan ere, iaiz etorkinen %43 ziren. Datu hau esanguratsuagoa bihurtzen da pertsona hauek ugaltzeko adinean daudela aipatzerakoan.

0 urtetik 20 urtera bitarteko adin tarteko kopurua ere handituz doa, urtebetean %7 igo baita. Datu honen zergatia familien berrelkartzetan aurkituko dugu, batez ere Hego Amerikako edota Ertamerikako haur eta gazte asko herriratzen ari direlako.

ADINA ETA SEXUAREN ARABERA BANATUTA




Etorkinen populazioaren piramideari erreparatuta, zenbait xehetasun aipatu daitezke:

Emakumeen populazioa, adinaren arabera, orekatuta dago; hau da, ez dago bereziki kopuru handiko adin tartetik.

Gizonezkoena, ordea, ez dago hain orekatua, horien kopuru handi bat (234 gizon) 21 eta 40 arteko adin tartean kokatzen delako; beraz, %62 adin tarte horretakoa da.


BERGARAN JAIOTAKO FAMILIA ETORKINEN HAURRAK



Arestian aipatu den bezala, etorkinen %56 adin emankorreetan dago eta, 2006ko abenduko datuen arabera, urte horretan Bergaran jaio diren etorkinen kopurua hamarrekoa da.

Momentuz, zaila da datu hori baloratzea. Hala ere, datozen urteetan kontuan hartzeko datu garrantzitsuenetako bat izango da.

ATZERRIAN JAIOTAKO BERGARAN ESKOLARATUTAKO HAURRAK




Grafikoan ikusi daitekeen datua ere oso nabarmengarria da; bi urtetan atzerrian jaiotako ikasleen kopurua ia bikoiztu egin da. Horrek ikastetxeentzat sekulako esfortzua egitea dakar; hizkuntza dela, kultura ezberdina dela, maila akademikoa ezberdina dela... gehienetan integrazioa ez baita erraza izaten.

Datu azpimarragarri bezala, aipatu behar da adin eskolarrean dauden haur guztiak eskolaratuta daudela uste dela.

Taula honetako datuak Bergarako ikastetxe guztiek emandako datuei esker osatu dira.

KONTINENTEAREN ARABERA



Aipatu beharra dago azkeneneko urtean, Europatik izan ezik, beste Kontinente guztietatik datozen etorkinen kopurua igo egin dela. Hala ere, daturik nabarmenena zera da: aurtengo etorkin gehienak Ameriketatik etorri direla.

Honek inmigrazio departamentuak zabalduko informazioak konfirmatzen ditu; etorkin gehienak ez datozela pateretan, hegazkinetan baizik.

Badirudi Bergarara datozen etorkinen jatorrien joera finkatzen ari dela kopuru osoaren ia erdia amerikar jatorrikoa baita, momentu honetan.

Bestalde, aipatzekoa da datu kurioso bezala, Afrikako zein Asiako ia herrialde banetatik bakarrik datozela etorkinak Bergarara, Marokotik eta Pakistandik hain zuzen ere.

ONDORIOAK

Inmigrazioaren datuen analisisa egiteko orduan ez dago oso urrun joan beharrik. Euskal Herrian bezala, Bergaran ere azkeneko bost – sei urteetako fenomeno bihurtu baita inmigrazioa. Datu aipagarri bezala esan daiteke 2000. urtean 67 etorkin besterik ez zeudela erroldaturik, hau da, orduan %0,4 besterik ez ziren. Gaur egun berriz, dagoeneko 772 ditugu; beraz, sei urtetan kopurua %1150 igo da. Argi dago gainera, fenomeno honek ez duela gelditzeko itxurarik eta herriarentzat erronka handia ekarriko duela, integrazio egoki bat lortu nahi bada, behintzat.

Aurtengo datu zehatzei begira, aipatu beharra dago 109 pertsona berri etorri direla (%15). Hala ere, agian bereziena aurten etorritakoen erdia baino gehiago boliviarrak direla da. Hori dela eta, momentu honetan Bolivia Bergarako etorkin kopuru handiena duen herrialdea izatera pasa da. Fenomeno honen azalpen bezala, boliviarrak emakumeek Caritasen bidez lana aurkitzeko izan dituzten aukera handiak aipatu daiteke, batez ere, etxe-zerbitzuan (nagusiak zaintzen, etxeak garbitzen, ea).

Herrialde horretatik etorriko den biztanle kopuruak gorako joerarekin jarraituko duela aurreikusi daiteke; oraindik boliviarrak emakume asko baitaude euren senarra, seme-alabak edo bestelako familia ekarri guran; beraz, oraindik familia bilkura gehiago ematea espero da.

Bestalde, orain arte nagusi izan diren pakistandarren etorrera nolabait geldotu egin dela dirudi, ez da eman familia-elkartze gehiegi. Badirudi horren arrazoia pakistandar gehienak ezkongabeko mutil gazteak izatea dela. Hala ere, datu hori kezagarria da; dagoeneko gizonezko etorkinen kopuru osoaren heren bat dira, eta ez da argi ikusten kolektibo horretako mutil gehiengek nola lortuko duten familia osatzea, bikotea hemen aurkitu behar badute behintzat.

Populazioaren piramideari erreparatuz gero, berriz, etorkinen gehiengo haurrak ekartzeko adinean dagoela ikusten da, kopuru osoaren %57 21-40 urteko adin tartean kokatzen baita, hain zuzen ere. Datu hau ere aurrerantzean kontuan hartzekoa izan beharko da.

Aipamen moduan, aurten dagoeneko 10 haur jaio direla. Gainera, nabarmendu beharra dago kolektibo honen jaiotza tasak gora egin dezakeen dudarik ez dagoela.

Aurten Bergarak populazio ezberdindua daukala ere ikusi da, Bergarako kolektibo nagusiak ez baitira EAE-koen berdinak. Europako kontinentetik ere apenas heldu da inor aurten, eta Europar ekialdekoen presentzia txikia izaten jarraitzen du. Horretaz aparte badugu beste ezaugarri bat: Afrika beltzeko ordezkarien presentzia minimoa.

Kezkatzeko datu bat ere aipatu beharra dago: etorkinen kontzentrazioa ematen ari dela herriko kale eta auzo jakin batzuetan, gune horiek ghetto bihurtzeko arriskuarekin.

Herriko ikuspuntua osatzeko helburuarekin, Gizarte Zerbitzuetako dirulaguntzak jasotzen dituzten pertsonen artean, une honetan, etorkinak soilik %15 direla esan behar da, iaz baino puntu bat gutxiago. Lana edota paperak aurkitzeko orduan dituzten zailtasunak kontuan hartuz, datu hau oso esanguratsua da.